

**EUSKARAREN ERABILERA
NORMALIZATZEKO PLANA
ZIERBENAKO UDALEAN
VI. plangintzaldia
(2018-2022)**

AURKIBIDEA

1. SARRERA ETA AURREKARIAK
2. ERAGIN EREMUA ETA ERAGIN EPEA.
3. DERRIGORREZ BETE BEHARREKO INDIZEA.
4. VI. ERABILERA PLANAREN HELBURU OROKORRAK.
5. VI. PLANGINTZALDIRAKO PROPOSATURIKO ARDATZAK, ELEMENTUAK ETA ADIERAZLEAK.
6. NORMALIZAZIO EKINTZAK.

1. SARRERA ETA AURREKARIAK

Euskal herri-administrazioetako hizkuntza normalkuntza prozesua plangintzaldika kudeatzen da, eta plangintzaldi bakoitzak bost urte irauten du. Euskal Autonomi Erkidegoan lehen plangintzaldia 1990ean martxan jarri zen, eta 2018an VI. Plangintzaldiari hasiera eman zaio, eta indarrean egongo da 2018ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra arte.

Zierbenako Udalak, Udal barneko lehenengo Erabilera Plana 2008an abiatu zuen, eta lehenengo Erabilera Plan horrek, udalerrian lan egiten zuten langileak euskalduntzea eta alfabetatzea izan zuen helburu nagusi. Izan ere, gehienak ziren zegokien Hizkuntza Eskakizuna egiaztatu gabe bertan lanean ziharduten langileak, eta Udalak hartutako neurriei eta langile horien esfortzuari esker, urte hauetan apurka-apurka, euskara gaitasuna lortzen joan direnak asko dira. Langileak euskalduntzea lehentasuntzat hartutako neurria izan zen, zeren eta euskara menderatzen ez duen langile batek lana eta zerbitzua euskaraz egitea ezinezkoa da. Hala ere, gaur gaurkoz, bide hori jorratzen jarraitu behar da, Zierbenako Udalean lan egiten duten hainbat langilek ez baitu helburu hori lortu.

Plan honen helburu nagusia Euskararen Erabilera Araukotzeko 10/1982 Oinarrizko Legeak esaten duena betetzeko pausoak ematea da, eta 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena betetzea, zehazki Lehen Atalburuko bigarren puntuan honako hau dioenean: Euskal Autonomia Erkidegoan dauden herri-administrazioekin euskaraz jarduteko eskubide osoa du herritarrak eta, beraz, eskubide hori bete dadin, herri aginteek, nor bere esparruan, euskara zerbitzu zein lan-hizkuntza modura normaltasunez erabiltzeko hartu beharreko erabaki guztiak hartuko dituzte.

86/1997 Dekretuak Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartu beharra ezarri zien euskal herri-administrazio guztiei. Gainera, plan horiek jaso beharreko gutxieneko osagaiak jaso ziren aipatu Dekretuaren 18. atalean. Dekretuak indarrean jarraitzen du.

2018an hasi eta 2022ko abenduan amaituko den VI. Plangintzaldi honetan, orain arteko bidea sendotu nahi da. Izan ere, ezagutzak garrantzia izaten jarraituko duen arren, erabilera izango da erronka nagusia; *euskara ere lanerako hizkuntza* "normala" bilakatu nahi dugu, eta, modu horretan, herritarren hizkuntza eskubideak bermatu. Horretarako, motibazioaren bidez, metodologia erraza eta malgua erabilita, hizkuntzen erabileran, berdintasunerantz jo nahi dugu: euskaraz eta gaztelaniaz jarduteko gaitasuna izatea.

Horixe izango da, hain zuzen ere, VI. Plangintzaldiaren helburu zehatza: *euskara ere lan eta zerbitzu hizkuntza* "ohikoa" bilakatzea, hau da, Zierbenako Udalean bi hizkuntzen erabileran berdintasunerantzko pauso eraginkorrak ematea.

Administrazioak bermatu egin behar du bi hizkuntza ofizialak erabiltzearen aukera, eta une honetantxe eman daiteke urrats garrantzitsu hori, hain zuzen ere, aurreko plangintzaldien bitartez hein handi batean, ezagutza maila ziurtatzen hasi garelako eta erabilerarako pausuak ere eman direlako.

Kanpo eta barne errotulazioari dagokionean, aurrerapauso handiak egin dira, Udalak Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana abiatu zuenetik, errotulazioa euskaraz ere egon dadin sustatu baita. Horrela baloratu dezakegu Udalaren webgunean eta euskarri digitaletan erabilitako hizkuntzaren irizpidea ere; izan ere, hasiera batean ohar eta albiste gehienak gaztelania hutsean argitaratzen baziren ere, gaur egun gehiena ele bietan argitaratzen da.

Hizkuntza Eskakizunetan aurrera egin ahala, kanpo-komunikaziori dagozkion idatzizko eta ahozko harremanetan aurrera egin da. Hala ere, maila honetan asko dago egiteke, gaur gaurkoz idatzizko harreman batzuk gaztelania hutsean egiten baitira.

Barne harremanei dagokienean ere, gauza bera esan daiteke, ohituren edota zailtasunen eraginez, batez ere idatzizko komunikazio gehienak gaztelania hutsean egiten baitira.

Hori guztia kontuan hartuta, Plan berri honetan, aurrerago azalduko bada ere, euskararen erabilera sustatu eta bermatu nahi da, euskara ere lan-hizkuntza izateko neurriak hartu nahi dira eta langileen euskara-gaitasuna etengabe hobetzeko neurriak hartu nahi dira.

2. ERAGIN EREMUA ETA ERAGIN EPEA

Plan honen eragin aldia 2022ko abenduaren 31n bukatuko da, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetako hizkuntza normalizaziorako prozesuaren VI. Plangintzaldia amaitzen den egunean bertan.

Plan honen eragin eremuak Zierbenako Udala hartzen du, eta Euskararen Erabilera normalizatzeko Planaren eraginpean egongo diren langileak ondorengoak dira:

- Herritarren hizkuntza eskubideak bermatu behar direnez, zerbitzu hizkuntzaren ikuspegiak ukitutako langile eta zerbitzuak, betiere, lanpostuak lanpostu estrategikotzat jotzen badira.
- Lanpostuaren hizkuntza eskakizunaren derrigortasun data gaindituta izanik, hizkuntza eskakizuna bera (edo baxuago bat) egiaztaturik duten langileak.
- Derrigortasun datarik gabeko hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan dihardutenek ere aukera izango dute planean parte hartzeko euskara gaitasuna egiaztaturik badute, euskararen gaitasuna neurriren batean izatea baita gakoa.

3. DERRIGORREZ BETE BEHARREKO INDIZEA

86/1997ko Dekretuaren 11. artikuluan, erakundeak nahitaez bete beharreko derrigorrezko hizkuntza eskakizunen indizea ezartzen da. Indize hori Erroldako eta Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikako datu soziolinguistikoen arabera zehazten da honako formula honen bidez: $\text{euskaldunak} + (\text{ia euskaldunak}/2)$.

Horren baitan, VI. Plangintzaldi honetan, Zierbenako Udalak nahitaez bete beharreko indizea % 41,59koa da 2016 urteko erroldako datu soziolinguistikoen arabera.

DERRIGORTASUN INDIZEA 2016ko ERROLDAREN ARABERA VI. PLANGINTZALDIA (2018-2022)

	BIZTANLEAK	EUSKALDUNAK	IA-EUSKALDUNAK	ERDALDUNAK	INDIZEA 2016			
UDALAK								
ZIERBENA	1.469	458	31,18	306	20,83	705	47,99	41,59

4. VI. ERABILERA PLANAREN HELBURU OROKORRAK

- Zierbenako Udalaren esparru guztietan euskara lan eta zerbitzu hizkuntza izango dela bermatzen saiatzea, eta hobetu beharreko arloak identifikatu eta horietan eragitea. Hau da, herritarrek Zierbenako Udalarekin dituzten harremanetan, ahoz zein idatziz, hizkuntza ofizial bat zein bestea erabiltzeko eskubidea bermatzea.
- EAEko beste administrazioekin dauden harremanetan euskararen erabilera sustatzea, ahoz zein idatziz, bereziki, Eusko Jaurlaritzarekin eta Aldundiarekin.

5. VI. PLANGINTZALDIRAKO PROPOSATURIKO ARDATZAK, ELEMENTUAK ETA ADIERAZLEAK

ZERBITZU HIZKUNTZA

Euskararen presentzia eta erabilera indartzea herritarrekiko ahozko eta idatzizko harremanetan, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko.

ERAKUNDEAREN IRUDIA

Jendaurreko gunetan jarrera proaktiboa erakustea herritarrei euskara erabiltzera gonbidatzeko (Txantxangorria, mahai gaineko txarteltxoak...)

Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak

Jendaurreko errotulazio eta ikus-entzunezkoak euskaraz ere egotea. Eta gaztelaniarekin batera erabiltzen direnean, euskarazkoari lehentasuna ematea, diskriminazio positiboa eginez.

Udal eraikinen barruan eta kanpoaldean jartzen diren errotuluak eta kartelak ondorengo kasuetan euskara hutsean idatzi ahal izango dira:

- Hitzak eta mezuak euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean.
- Oso erabilera hedatua duten izendapenak: Kultur Etxea, Udaltzaingoa, Udaletxea...

Argitalpenak, publizitatea, albisteak eta jendaurreko ekitaldiak

Argitalpenetan, publizitatean eta jendaurreko ekitaldietan euskararen presentzia eta erabilera bermatzea. Eta bi hizkuntza ofizialak batera azaltzen direnean, lehentasuna euskarari ematea.

Ingurune digitala

Webgunean eta sare sozialetan edukiak euskaraz ere egotea, eta defektuz euskarazko sarbidea ematea. Haur eta gazteei zuzendutakoetan euskara hutsezkoek izango dute lehentasuna, betiere, euskaraz ez dakitenen eskubideak urratzen ez badira, horientzat gaztelaniazko laburpena egingo da.

Zierbenako Udalaren webguneako eduki nagusiak euskaraz eta gaztelaniaz kontsultatzeko moduan egongo dira, eta webgunera sartzean, hasierako hizkuntza euskara izango da eta aukera egongo da gaztelania hautatzeko.

HERRITARREKIKO HARREMANAK

Zerbitzuetan euskararen erabilera indartzea eta herritarrei euskaraz artatuak izateko aukera dutela jakinaraztea. Era berean, euskaraz artatuak izatea aukeratzen dutenei zerbitzua euskaraz jasoko dutela bermatzea.

Idatzizko harremanak

Herritarrentzako erabiltzen diren idazkietan elebitasuna bermatzea.

Ahozko harremanak

Herritarrekiko ahozko harremanetan euskararen erabilera areagotzea eta euskarazko komunikazioa eskatzen duenari euskaraz erantzungo zaiola bermatzea. Harrera beti euskaraz egitea, hau da, lehen hitza, bai aurrez aurre bai telefonoz, beti euskaraz izatea.

LAN HIZKUNTZA

Lan harremanetan euskararen erabilera areagotzea.

BARNE KOMUNIKAZIOA ETA LAN-TRESNAK

Komunikazioan eta lan-tresnetan euskara ere ohikotasunez erabiltzeko aukera ematea, horrela erabiltzeko gaitasuna duten langileei.

Idatzizko barne komunikazioa

Euskararen erabilera areagotzea idatzizko komunikazioetan. Euskara lan hizkuntza izateko ahalegina egingo da, Udalak langileen esku beharrezkoak diren bitartekoak jarritz: idatzi eredu egokiak, itzulpen zerbitzua....

Barne funtzionamendurako komunikazio administratiboak (zirkularrak, oharrak, langileen eskaerak...) euskaraz izateko ahalegina egingo da. Alegia, euskaraz jarduteko gaitasuna duten langileek euskaraz idatziko dituzte barruko komunikazio administratiboak, betiere, hartzailearen hizkuntza gaitasuna kontuan hartuta. Udalak, horretarako beharrezkoak diren neurriak jarriko ditu langileen esku (inprimakiak, idatzi-ereduak edota itzulpengintza).

Ahozko barne komunikazioa

Euskararen erabilera areagotzea ahozko komunikazioetan. Arloen arteko harremanetan euskarazko komunikazioa sustatuko da, bai langileen arteko harremanetan bai langileen eta zinegotzien artekoetan.

Baliabide informatikoak

Euskarri informatikoen euskarazko bertsioa ere egotea, betiere langilearen hizkuntza gaitasuna errespetatuz, eta horien erabilera sustatzea.

PERTSONEN KUDEAKETA

Pertsonen kudeaketan eta prestakuntzan euskararen gaitasuna eta erabilera indartzea.

Laneko prestakuntza

Euskarazko prestakuntzaren eskaintza areagotzea eta eskaera sustatzea.

Zeregin hori errazteko, hainbat baliabide eta bitarteko eskainiko dira, besteak beste, hizkuntza prestakuntza IVAPeko ikastaroak eta trebakuntza Lanpostuen Zerrendako langileei, eta aholkularitza, zuzenketa, itzulpena eta baliabide informatikoak lanpostu estrategikoak betetzen dituzten langile guztiei.

Euskara maila hobetu nahi duten Lanpostuen Zerrendako langileek euskara ikastaroetan parte hartu ahal izango dute, orain arte bezala, baldin eta Udalak eta HAEE/IVAPek ezartzen dituzten baldintzak betetzen badituzte. Gainerako langileekin dagokien euskara maila lortzeko bidea adostuko da.

Euskara maila egokia izanik, baina eguneroko lanak euskaraz egiteko zailtasunak dituzten langileei bitartekoak eskainiko zaizkie, lana euskaraz egiteko baliabideak eskura jarri (administrazioa euskaraz bezalako aldizkariak eskuratuz), eta idatziak estandarizatzeko aukera eskainiz.

KANPO HARREMANAK

Euskararen erabilera areagotzea kanpoko erakundeekiko harremanetan.

Administrazioa

Euskararen erabilera areagotzea herri administrazioekiko harremanetan.

Plangintzaldiaren amaierarako, Zierbenako Udalak idatziak euskaraz edo ele bietan bidaliko dizkie EAEko gainerako administrazioei, azken hauetan euskarari lehentasuna emanda.

Dena dela, euskara hutsezko komunikazio administratiboak bidaliko zaizkie propio hala eskatzen duten administrazioei edota hala adosten badute. Era berean, euskara hutsean funtzionatzen duten administrazioetara ere euskara hutsezko komunikazioak bidaliko dira.

Enpresa pribatu hornitzaileak

Euskararen erabilera areagotzea hornitzaileekiko harremanetan.

HIZKUNTZA KUDEAKETA

Hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea, euskararen kudeaketa Udalaren kudeaketa orokorrean txertatzea eta Udaleko zerbitzuen prozesuetan hizkuntza txertatzea.

Sortze hizkuntza

Euskaraz komunikatzeko gaitasuna duten langileek euren laneko idatziak euskaraz sortzea sustatzea.

Nahiz eta Udaleko langile asko, neurri batean edo bestean, euskaraz lan egiteko eta dokumentuak hizkuntza horretan idazteko prestatuta egon, egia da Udalean orain arte egon den dinamika orokorragatik joera nagusia izan dela testu asko gaztelaniaz sortu eta gero euskarara itzultzea bidaltzea.

Euskaraz idazteko gaitasuna duten langileen kasuan, sustatuko da langile horiek euskaraz ere sortzea nahiz eta hasieran behintzat, zuzentzeko itzulpen zerbitzura bidali.

Hizkuntza irizpideak

VI. Plangintzaldi honetan Hizkuntza Irizpideak zehaztuko dira. Izan ere, gaur egun langile askok badute euskaraz lan egiteko gaitasuna, maila batean edo bestean; dena dela, oraindik ere toki gehienetan, urteetako inertiaren indarrez, gaztelaniaz jarraitzen da lanean eta gero itzultzen dira euskarara. Eta garbi dago, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko, bi hizkuntza ofizialak berdintasunez erabili behar direla.

Horrenbestez, Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak zehaztuko dira, alegia, zein izan behar den bi hizkuntza ofizialen erabilera Udalean. Bertan jasoko dira, besteak beste, hizkuntza ofizialak nola erabili hizkuntza paisaian, jendaurreko ekitaldietan, ahozko harremanetan zein idatzizkoetan edo komunikazio telematikoetan; itzulpen irizpideak ere finkatuko dira, eta baita erregistroan, diru-laguntzetan, kontratazioetan edo erakundeak kudeatzen dituen argitalpenetan zer- nolako tratamendua eman behar zaien bi hizkuntza ofizialei ere.

Hizkuntza eskakizunak

Hizkuntza eskakizunen plangintzari jarraipena egingo zaio.

Hizkuntza-eskakizunen esleipena lanpostu bakoitzaren ahozko eta idatzizko funtzio komunikatiboei begira egiten da. Euskararen ezagutza gero eta altuagoa da; izan ere, Zierbenaren kasuan 2008an lehenengo Plana indarrean jarri zenean, betetze maila, % 27,71koa zen, V. Plangintzaldiaren amaieran (2017), aldiz, Lanpostuen Zerrendako lanpostuen % 53,3k zeukaten Derrigortasun Data ezarrita. Plan hau idazterako orduan, Lanpostuen Zerrendako lanpostuetatik % 61.54k dute Derrigortasun Dataren bat ezarrita, eta VI. Plangintzaldiaren hasieran Zierbenako Udalak derrigorrean bete beharreko derrigortasun-daten indize berria, % 41,59koa da.

Ondoren, Zierbenako Lanpostuen Zerrendako Langileen hizkuntza-egoera adierazten da:

Izena	H.E	DD	HE egiaztatua	Egoera
IDAZKARI – KONTUHARTZAILEA	4	07/12/31	-	Hutsik
APAREJADOREA	3	D/G	2	Zerbitzu kontratazioa
APAREJADOREA	3	09/12/31	2	Lan kontratuduna
ADMINISTRARIA	2	05/04/30	2	Beteta
ADMINISTRARIA	3	08/12/31	3	Beteta
ADMINISTRARIA	2	08/12/31	3	Beteta
ADMINISTRARIA	2	20/09/30	0	Beteta
BEHARGINA	1	D/G	0	Beteta
BEHARGINA	1	D/G	0	Lan kontratuduna
TOKI-GARAPENERAKO AGENTEA	3	16/12/31	3	Interinitatea
AGUAZILA	2	D/G	1	Lan kontratuduna
AGUAZILA	2	D/G	0	Lan kontratuduna
KULTUR TEKNIKARIA	3	08/12/31	0	Azpikontratatu

Lanpostuen Zerrendako Hizkuntza eskakizunen betetze mailaren datu kuantitatiboei erreparatuta (13 lanpostu daude, horietako batean ez dago langilerik; hori dela eta, gainontzeko 12 lanpostuetako jardunean diharduten titularrak eta okupatzaileak batera hartuta), hauxe da ezagutza maila:

- Lanpostuen Zerrendako langileen % 58,33k hizkuntza eskakizunen bat egiaztatu du:
 - % 25ek dagokion Hizkuntza Eskakizuna egiaztatu dute.
 - % 8,33k dagokiona baino Hizkuntza Eskakizun altuagoa.
 - % 25ek dagokiona baino Hizkuntza Eskakizun bat baxuagoa.
 - % 41,66k ez du inolako Hizkuntza Eskakizunik egiaztatu.

VI. Plangintzaldia diseinatzeko zehaztutako irizpide orokorretan, hiru egoera adierazten dira derrigortasun datak zehazteko: jendaurreko lanpostua izatea, harreman estrategikoak dituen lanpostua izatea, edota atal elebidunak eta euskarazko atalak eratzeko edota trinkotzeko beharrezkoa den lanpostua izatea.

a. Jendaurreko lanpostuak

VI. Plangintzaldiaren helburuetako bat da zerbitzu-hizkuntzari loturiko adierazle guztiak %100ean egotea, eta Dekretuaren 20. artikuluan xedatutakoaren arabera, derrigortasun-datak esleitzerakoan kontuan hartu beharko da langileak jarduera betetzean herritarrekin duen harremana. Horregatik, jendaurreko lanpostu guztietan derrigortasun-datak ezartzeko aukera egongo da.

Jendaurreko lanpostuak bi motatakoak izango dira. Alde batetik, herritarrei lehenengo arreta ematen dieten lanpostuak; esate baterako, erregistroko langileak, edo herritarren telefono-deiak hartzen dituztenak, besteak beste. Eta bestaldetik, herritarrek artatzeko administrazioaren lehenengo lerroan ez badaude ere, herritarrekin harremanak dituzten lanpostuak; esate baterako, herritarren kontsultak ahoz zein idatziz jaso eta erantzuten dituzten herri-administrazioetako langileak, besteak beste.

b. Harreman estrategikoak dituzten lanpostuak

Dekretuaren 20. artikuluan xedatutakoaren arabera, derrigortasun-datak esleitzerakoan kontuan hartu beharko da langileak jarduera betetzean administrazioaren barruan duen harreman-sarea. Horregatik, lanpostu estrategiko guztietan derrigortasun-data berriak ezartzeko aukera egongo da.

Harreman estrategikoak dituzten lanpostuak bi motatakoak izango dira. Alde batetik, herri-administrazioaren baitako hainbat ataletako langileekin lan-harremanak dituzten lanpostuak, esate baterako, pertsonal-arduraduna, kudeaketa ekonomikoa, zerbitzu juridikoak edo informatikariak, besteak beste. Eta bestaldetik, beste herri-administrazioekin lan-harremanak dituzten lanpostuak. Hau da, herri-administrazioaren barruko harreman estrategikoak dituzten lanpostuez gain, beste herri-administrazioekin ahozko zein idatzizko komunikazioak dituzten lanpostuak ere estrategikoak izango dira.

Gauzak horrela, une aproposa da lan jardunetan euskararen erabilera areagotzeko; hala ere, komeniko litzateke hizkuntza eskakizunen plangintzari jarraipena ematea, eta inolako ezagutzarik egiaztatu ez duten lanpostuetako langileekin plangintza pertsonalizatuak diseinatu. Halaber, etorkizuneko lanpostuetan ere euskararen ezagutza bermatu beharko da. Hori guztia kontuan hartuta, langileen prestakuntzarako proposamena hau egiten da:

- Langile batzuek, nahiz eta euren lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izan, zailtasunak dituzte eguneroko lana euskaraz egiteko. Arazo horri irtenbidea emateko proposatzen dira trebakuntza saioak eta unean uneko arreta pertsonalizatua.
- Trebakuntza era puntualean eskainiko da, hau da, langile bakoitzak dituen behar jakinen arabera, adibidez, txostenak egiten trebatzeko, oharrak idazten trebatzeko e.a.

Zierbenako Lanpostuen Zerrendatik kanpo, herritarrekin harremana duten beste lanpostu batzuk ere badaude. Honako hau da lanpostu horien hizkuntza-egoera:

Zierbenako Lanpostuen Zerrendatik kanpo dauden baina herritarrekin harremana dutenez, lanpostu estrategikotzat jotzen diren langileen hizkuntza egoera Zierbenako **Udaletxeko behin-behineko langileak:**

Lanpostua	Eskatuko geniokeen HE	HE aitortua
Arkitektoa	3	2
Ingurumen teknikaria	3	2
Udal zergen arduraduna	3	3
Administraria	2	0

Kultur Etxeko behin-behineko langileak:

Lanpostua	Eskatuko geniokeen HE	HE aitortua
Gizarte langilea	3	3
Haurtzaro, gazteria eta familia Saileko arduraduna	3	0
Administrari laguntzailea	2	1
Hezitzailea	3	3
Hezitzailea	3	2
Euskara Teknikaria	4	4

Zierbena Portua enpresa publikoko langileak:

Lanpostua	Eskatuko geniokeen HE	HE aitortua
Administrari laguntzailea	2	0

Kiroldetako behin-behineko langileak:

Lanpostua	Eskatuko geniokeen HE	HE aitortua
Koordinatzailea	3	3
Administrari laguntzailea	2	1
Administrari laguntzailea	2	0

Nahiz eta langile hauek Lanpostuen Zerrendatik kanpo egon, dagokien Euskara Gaitasuna lortzeko plangintza eta epe pertsonalatuak adostea proposatzen da. Zerbitzua eskaintzen duten profesionalak edota azpikontratatuak enpresetako kide diren pertsonak Udalarekin koordinatuko dira ikastaroak egiteko. Ikastaro horiek profesionalak edota enpresek beraiek ordaindu beharko dituzte.

Ordezkeri politikoaren hizkuntza gaitasuna

Legealdi honetan 9 ordezkerietatik 3 (% 33) ordezkeri dira euskarazko gaitasuna dutenak, beste 2 (% 22,2) ulertzeko gaitasuna dutenak, eta beste 2k euskaltegian izena eman dute euskara ikasteko/hobetzeko. Horrenbestez, zinegotziak motibatzen jarraitu behar da, euskarara hurbil daitezen.

6. NORMALIZAZIO EKINTZAK

Hona hemen Euskara Zerbitzuak VI. Plangintzaldian bideratzea aurreikusten dituen normalizazio ekintza nagusiak:

Hizkuntza prestakuntzari dagozkion normalizazio ekintzak:

- Euskara ikasteko dauden bitartekoak erabiliz, hizkuntza prestakuntza orokorra eskaintzea, langileek euskara ikastaroetara joateko dituzten baldintzekin bat etorriz (Lanpostuen Zerrendako langilea bada IVAPeko ikastaroetan parte hartzeko aukera, gainontzekoekin hizkuntza-prestakuntza Euskaltegira bideratu...).
- Laneko prestakuntza ikastaroetan euskarazko eskaintza gehitzea.
- Hiztegi terminologikoak langileen eskura jartzea.
- Langileei hizkuntza-aholkularitza eskaini eta idazkien zuzenketak egitea uneoro.

Baliabide materialei dagozkien normalizazio ekintzak:

- Aplikazio informatikoen euskarazko bertsioa langileen eskurajartzea.
- Baliabide informatikoek eskaintzen dituzten aukeren berri ematea langileei (zuzentzaile ortografikoak, hiztegiak, banku terminologikoak, itzulpen memoriak...).
- Hala behar den kasuetan, itzulpenak egitea.
- Idazki normalizatuak sortzea hizkuntza ofizialen erabilera errazteko.